



M^a VICTORIA JOARISTI OLARIAGA
ANDEREA, OIARTZUNGO UDAL
AGURGARRIAREN IDAZKARI
NAIZENAK

ZIURTATZEN DUT: Udal honen Tokiko Gobernu Batzarrak, 2009ko apirilaren 1ean, ondorengo Akordioa hartu zuela:

“OIARTZUNGO ITURRIOTZ ETA UGALDETZO AUZOEN ARTEKO (ITURRIOTZ – GI3631 (PK 1,54)) UR HORNIDURAREN PROIEKTUKO OBREN BEHIN BEHINGO ESLEIPENA BEHIN BETIKO BIHURTZEA.

2009ko martxoaren 10ean Udal honen Tokiko Gobernu Batzarrak, “Oiertzungo Iturriotz eta Ugaldetxo auzoen arteko (Iturriotz – GI3631 (PK 1,54)) ur horniduraren proiektua” obrak behin behingo izaeraz Construcciones Dumboa S.A.ri esleitzea erabaki zuen, jendaurrean ezagutzera eman gabeko prozedura bidez.

Construcciones Dumboa S.A. enpresak, aurkeztu ditu aurkeztu beharreko dokumentu eta ziurtagiriak eta behin-betiko bermea jarri du horretarako eman zitzaion epean, eta ondorioz, Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako txostenarekin adostasunean, aho batez, “Oiertzungo Iturriotz eta Ugaldetxo auzoen arteko (Iturriotz – GI3631 (PK 1,54)) ur horniduraren proiektua” obrak behin-betikoz Construcciones Dumboa S.A. enpresari (NIF A-20135935) esleitzea erabaki da, 36.098,04 €ko prezioarekin, BEZ kanpo. BEZa 5.775,69 €koa da. Beraz, kontratuaren prezioa guztira, 41.873,73 €koa da.

Bestalde, 3 asteko egikaritze epea izango du eta obran 5 pertsona okupatuko ditu, 3 enpresan integratutakoak eta 2 kontratazio berrikoak.

Halaber, proposamenak aurkeztu baina esleituak gertatu ez diren enpresei, proposamenarekin batera aurkeztutako behin behingo abalak itzultzea erabaki da, kasu honetan ondorengo enpresei:

- Construcciones Alzola S.A.”

Eta horrela jasota gera dadin ematen dut ziurtagiri hau, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikulua arabera, Alkate Jaunaren agindu eta oniritziarekin batera, Oiertzunen, bi mila eta bederatziko apirilaren batean.

O.E.
ALKATEAK,
ALKATETZA
OIARTZUNGO
UDALA

IDAZKARITZA
OIARTZUNGO
UDALA